

Altzako Historia Mintegia

AZKEN KARLISTADAREN LEKUKOAK

XIX. mendeko karlisten eta liberalen arteko gerrek mugarri bat jarri zuten gure historiaren ibilbidean, maila politiko zein sozialean, eta euskaldunen artean utzitako aztarnak luzaroan iraun zuen. Baita Altzan eta altzatarren artean ere, gertutik bizi izan baitzituzten gerrako gorabeherak: gotorlekuen kanoien danbadak eta triskantzak, tropen mugimenduak, soldaduen erasoak eta tiroketak...

Azken gerra bukatu eta mende erdi bat beranduago, belaunaldi berriek zaharrrak ordezkatu zituzten eta gerraren lekukoak, jakina, bakanagoak ziren. Aita Franzisko Apalategi jesuita (Donostia, 1887-Loiola, 1948), haien bila ibili zen Euskal Herrian barrena 1922 eta 1936 urte bitartean, bati eta besteri galdezka. Bildutako testigantzekin bost koaderno bete zituen, berak marraztutako hainbat maparekin horniturik. Bilaketa horretan Altzan ere zenbait lekuko aurkitu zituen eta, gerrako gertariak Altzako inguruetan ere izan zirenez, beste lekuko askok hemengo gotorleku, baserri eta abarreko aipamenak ere egiten zituzten. Horiek guztiak dira artikuluko honetan bildu nahi izan ditugunak.

Apalategik Historia erakusten zuen Valladoliden eta hainbat liburu eta artikuluko idatzi zituen, baina lan guztien artean, aipatutako eskuizkribu horiek dute guretzat interesa. Eskuizkribu horiek Koldo Mitxelena Liburutegian gordeak daude eta zati handi bat, bi dokumentutan katalogaturik, Interneten bitartez on-line kontsulta daitezke faksimile moduan. Lehen dokumentuan¹ 1922tik 1930era egindako bilketa jasotzen du eta dauzkan krokisak kalitate eskasekoak dira. Bigarreanean², or-

¹ Apalategi, Francisco: Karlo'tar berriketak [Eskuizkribua]. Koldo Mitxelena Liburutegiaren webgunea: <http://www4.gipuzkoa.net/KMKatalogoa/?itemid=|library/marc/koldo|000000234636>

dea, irudiak kalitate hobeagoak eta landuagoak dira. Zorionez, Altzari buruzko gehienak hor ageri dira.

Material honekin Antonio Zavala jesuitak bi edizio argitaratu zituen Auspoa bilduman. Biak erabili ditugu eta biak ere Koldo Mitxelena Liburutegian irakur daitezke on-line. Lehenengoa 1961. urtekoa da eta "Euskal mutilak armetan"³ izenburuarekin argitaratu zuen. Liburu honetan lekukotasunen aukeraketa bat baino ez zuen argitaratu eta ez du irudirik eskaintzen. Liburu hau argitaratu zenean Luis Mitxelenaren kritika onak jaso zituen Egan aldizkarian⁴. Bigarren edizioan⁵, 2005. urtean "Karliten eta liberalen gerra-kontaerak" izenburupean bi tomotan argitaratua, eskuizkribuen eduki guztiak eskaintzeaz gain, gaztelaniazko itzulpena eta mapak ere erantsi zituen.

Esan bezala, hona ekarri ditugun pasarteak Altzari lotutakoak dira soilik. Lehenengoa Martillunen biltzen zen koadrilaren pasarte da, bukaeran mapa polita eta guzti. Ondoren, han-hemen hartutako orriak dira, batez ere mapak ageri dituztenak. Koadernoaren orrialdeen erreproduzioarekin batera, horien transkripzioa egin dugu Aita Zavalaren argitalpenen laguntzarekin. Bukaeran, koadernoetan alztatarrak ez diren lekukoek Altzako inguruekin zerikusirik dauzkaten aipamenak ere jaso ditugu. Kurtsibaz idatzitakoa gure oharrak dira.

Eskuizkribu interesgarriak, zalantzarik gabe, Apalategirenak, karlistaden historia hobeto ezagutu nahi dutenentzat eta baita tokiko historiaz interesaturik dauden edonorentzat ere, ahozko informazio-iturrietan eta bizipenetan oinarritutako lan-metodologiari eta datuei garrantzi handia ematen baitzaio.

² Frantzisko Apalategiren oharrak [Eskuizkribua]. Koldo Mitxelena Liburutegiaren webgunea: <http://www4.gipuzkoa.net/KMKatalogo/?itemid=|library/marc/koldo|000000234325>

³ Apalategi, Frantzisko: Euskal mutilak armetan. (Antonio Zabalaren argitalpena). Auspoa liburutegia 3, 1961. Bertsio digitala: <http://armiarma.com/emailuak/mizka/armetan.htm>

⁴ "Ezta noski gauza bera Pirala baten liburu larriak irakurtzea eta Aita Apalategi' ren koadernoetan barrena sartzea. Eztira emen ikusten ez gerraren gora-beera andiak, ezta arkitzen ere egintari ta buruzagien asmo eta usteen berririk. Bada ordea besterik, Pirala'k eztakarrenik: egun emen eta biar an, nola eta zertarako eztakiela geienetan, dabillen edo darabilten soldaduaren nekeak, naigabeak, usteak, pozak eta damuak... Norbaitek novelaren bat egin nai baldin balu garai ortaz obeko du "Auspoa"-koei eskerrak eskuetara dizkiguten joskurarik gabeko oar oek irakurri bestelako liburu lodi asko baiño. Eta historia egin nai duenari ere, barrengo eta ziñezko historia baldin bada, eztio kalterik egingo oriek astiro ikustatzeak". Egan aldizkaria, 1961, 1-3, 144 or.

⁵ Apalategui Igarzabal, Francisco: Karliten eta liberalen gerra-kontaerak / Relatos de guerra de carlistas y liberales (argitalpena, Antonio Zavala). Auspoa liburutegia, 292 zenbakia. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005

ALZA⁶

1.— MARTILLUN (+1933)

Altzako tabernaria.

1931garreneko Abenduaren 29an.

Altzan lau karlotar arkitu ditut. Igandero batzen dira Martillun'en tabernan.

Martillun Santa Cruz'ekin ibilia. ¡Gure ibitaldiak! Illunduta Leizatik erten; Goizuetan egonaldi txiki bat egin, ta goizerako Oyartzun'en.

Gero lenengo batalloira.

Belabietan. Lau konpañi giñan Berrobin Itxasorekin. Beste lau Belabieta mendian sakabanatuta.

Apaiza azaldu zanean berarekin jun giñan.

Goizean Asteasu bekora apaizarekin.

Asteasu goikora abiatu dira Antxusarekin. Antxusa au, Oyartzungo estudiantea, kapitana ta an zijoazten artean malla goragokoena.

Antxusa il da (Goyaz'en) urrengo egunean Azpeitira, ta an sakabanatu giñuzten.

Ni ta beste asko bigarrenera.

Estellara. San Juan besperan lubakian sartu, San Pedro besperan erten.

Gabez ere goardia egin bear zan. Ezan lo egiterik. Noizean bein zentillelak: «allerta... allerta...» ta azkenekoak: «Allerta estoy.» esan oi zuten.

Naparroan. Estellakoan ondoren an geratu giñan.

Lorka (errian) giñala, Enparan'ek paloak eman nai izan zizkion guretako bati, bañan Iturbek galerazi zun.

Txoritokietan. San Miel eguna, goiz goizean, mikeleteak Irazuene (goy) base-rrian (Txoritokieta pean) formatu ta musika joaz gora ekin zioten. Etziran, iyo ziran danak, bere oñez jetxi.

Txoritokieta-Aundi (Arkaizaundi), Txoritokieta-Txiki.

[*Krokisa*: Txoritokieta aundi (Arkaizaundi), Txor. txiki. Au (txikia) artu ziguten mikeleteak goizean, bat batean. Bañan ortik aurrera Txoritokieta aundira jun na-yeau galdu ziran. An il gendun Amante.]

⁶ II. eskuizkribua, 4-9 orr.

2.— LAUREANO (+1933, Abenduaren 17'an)

Gizon luxe giyarra, 80 urte. Iturritik ura zeraman, baratza ontzi bete.

— Ni Otxaboren partidari ibilli nizan. Otxabo mikeleteetan sarjento izana, konpañiko diruak jokuan galdu ta guregana etorria zan. Kapitane egin zuten.

Guk praka ta txapela gorriak, mikeleteak bezela; kapatxoa ez izatea. Beste karlistak ezuten bada praka gorriak. Ez; guk bakarrik.

Oyartzungo parean eritu niñuten. Lepo ondolik bala sartuta ta sayeatzetik irten.

—Zenbat ziñaten partidari?

—40ren bat.

—Nun lo egiten zenuten?

—Ez genun toki jakinik. Batzutan Santiyon. Baita eliz barrenen ere. Besteetan baserrietan.

—Zertan aritzen ziñaten?

—Ibilli; batzuetan gabez, bai egunez ere. Ergobitik Erretereri gañera, Loyola, Miracruz ta...

Errekonozimentuak egin. Zubi ondoetan goardiak (paisanoak) ipiñi. Gabeko batbaterik egin ezizaten mikeleteak (sorpresa nocturnas), al bazan prisionero bat edo beste egin ta...

3.— APALATEGI ATAUNDARRA

4.— TXAPIÑENEN INAZIO.

Txapiñena, eliz ondoan.

Gizon motz, sendo; argia da. 82 urte.

—Ni ere lenengotik Santa Cruz'ekin.

—Aritxulegin?

—Bai; Aritxulegi *erdikoan*. Au ikasteko tokia.

—Ta armak atontzeko?

—Bordan; Goyenetxe aldera.

Lenengotik armak eramandakoak, bayonetak ez bait zuten zorrerik, ta muturrak ixtarrean miñ egiten ziguten. Orregatik, bayoneta muturrari arto mokotxa jarri genion. Gero Erreteretik larrubak eraman ta estalkiak egin genizkien.

Lenbizikora, Enparanekin.

Somorrostron parapetoak zotalaz egiñak, zotalak bata besteen gañera ipiñita.

—Ormazko barrundik, lubakia?

—Gutxi.

—Norañoakoak

—Bularretaraño geyenaz. Su egiteko belauniko. Kañoi balak aiden zeramaz-kiguten.

[*Krokisa*: San Marcos, Berrozpin (goy), Arkaitzaundi, Ataño, Txoritokieta, Irazuene (goya), Ametzagaña.]

[*San Marcos dagoen tokia*: Trillo'renak (soldadu xarrak).]

[*Txoritokieta dagoen tokian*: Mikeleteak.]

[*Irazuenegoya dagoen tokian*: Emendik abiatu ziran mikeleteak musika joaz.]

[*Arkaitzaundi hitzaren ondoan 'a' bat dago, oharra*: Orain mendi aundi oni Txoritokieta diyote, bañan zarrak diotenez (lau zarrek esan didate) beko txikia da Txoritoki; gañekoa berriz ARKAITZAUNDI, ta onen azpitik izaten dala *uxo-pasa* ta bekoan izaten dala eiztari tokia.]

[*Trillorenak dagoen toikan 'b', oharra*:] Azurmendi'tar Martin, bostgarrenge teniente izandakoak: «Gu Lasarten giñan. Goizean goiz, Oriamenditik granada bota ziguten, ta esan nun: "Gaur atakea nunerebait izango da, bañan ez emen". Eskuitik jo nai zutenean ezkerrera kiñu egiten zuten.»

—Erdiko mendian (Berrozpin) ez al zan atakerik izan?

—Ez; (an sartu izan balira, ezker eskuiko suaz kixkaliko zituzten).

Mikeleteak Txoritoki (txikira) errez io ziran, bañan aurreragoko sakonean (arritsua da oso) purrukatu zituzten. Astigarrako bentara jexteko asmo ote zuten; bañan alperrik.

Karlista laugarrengeak omen ziran gogor egin zutenak.

[*Orriaren behealdean, krokisa*: Alza. Eliza. Pelotalekua. Emen zegon len iltokia, ta emen jarri zituzten beltzek kañoiak, karlistai begira.]

4. ALZA

S. Martiñun † 1253

Altzako tabernaria

1251 garretoko Abenduararen 29an.

Altzan, Lau Karlo xar' artitudelut. Izandoo
batzen dira Martiñun'en tabernan.

Martiñun, ¹ta Cruz'ekin ibilein; Gure ibilite-
disk! Jlunduta beizatik esten; goizuetan
egonaldi teiki bat egin, fa goizetako Oyarzun'en
guz teneng bataioira
Delabitam
~ ~ ~ ~ ~

Lau konpaini gizon Desobin. Harearekin.
Bate lau, Delabita mendian dehabantat.
Apirra arelda zauron berarekin jingizian.
Goizean, Altesa bekom apirarekin.
Altesa goikora abistu dira Antzuararekin (1)

(1) Antzusa eta Oyarzun goizuetan - Kapitana
fa an zijaarten artean mala goragokoena.

COL. P-F - APALATEGUI

5.

Antxusa if da (Goyen in) urteko egunetan
depretera, ta an dakabatu giniuten.
Ni ta beste arto, bigarrena era.

Estelara - P. Juan bapera lubeak iudartu
Eber ere gordin in beraz in izan lagiteak. Noizean bain
Zentilelot: "altea - altea - ta aske.
netak: altea estoy." esan orizute,

Estelaren ondoren
Naparroan de g z o t a g i n a n.
Lortu (erian) ginala. Eufaraneak
paloak eman nai izan zirkion guretoko bati,
baxuan J turbek gal erari zuz.

Txoritokietan - P. Niel egun - goiz goiz
Mikelteak ~~g~~ ~~r~~ ~~a~~ ~~r~~ ~~e~~ ~~n~~ ~~d~~ ~~a~~ ~~r~~ ~~a~~ ~~n~~ ~~d~~ ~~a~~ ~~r~~ ~~a~~ ~~n~~
baserian (txoritokietan) formatu ta
musika jaan gora etin zisten, Ezurain, ip
Ziran dauk, bere oner jexi.

txoritokita aundi (Arrixauudi)
txor. txiki
an txikia] artu ziguten
mikelteak, goizean, bat baten.
Baxuan orrik aundia t. aundia o. aundia

altea if in
arai

6.

† - 1933 - Abendaren 17an.

Jo urte

2. Laureano - Gizon luze gijara - Huririk
ura xerunari, barotan ontzi betan.

- Ni Oktoboren partidan ibili niran.
Oktabo mikelletean Sanjente ~~bat~~ ^{gaur da} Kompa-
niko diruet jokuan geldu ta guregana
etaria ran. ~~bat~~ Kapitan ezin duten.

Gut frankot - Kaxela garirik; mikelleteak
bezela; Kapitan ez izatea. Beste kaxelak
exuten bada franka garirik - Ez; gut
bakarik

Darzungo jarean suten nintzen, abepo
ondetik bala sartuta ta dayatetik iten.

- Zerbait zintze partidan? Koren bat
- Nun loegiten nentzen? Ez genuen toki jakirik
- Zertan aritzen zintzen?

Watzuta Santyon, baita
eliz barean ere.
Wateetan barrietan
- Ibilu i batzuetan gabez; bai

Ez gure ere. Ergobitik Ezeperri ganara
Loyola - Miracruz ta ..

Erekonozimenduak egi - Zubi ondoetan garirik
(Paisanoak) ipini - Gabeko bat - batakorik
eai eririk ta mikelleteak (ortofrejak nocturnos)

3 - Apalategi - Otaundara.

4.

COL.P-F-APALATEGUI

J Txapinenerako Inazio - Txapinena,
Lis ondoan.

Gizon mot 2, senda; argia da. 82 urte
Ni ere benetarik J. Cruz'ekin.

o Arichulegin?

- Idai; arrixulegi erdikoan. Au ikusleko tokiya.
- Ta armak atontzeko!
- Dordan; Goyeatzeko aldean.

Benetarik armak eraman ditakoak, Baya
tak ez bait dute zorarik, ta muturak
ixtarren muniten ez itendigiten. Orixeatik,
Bayoneta muturari, arto mototxa jai
guzian. Gex Bientatik larubakerama
ta estelkark ezin jaririkian.

Benbixikora - lurraraneekin

Josuar'ekin? Txapineroak zotala ezina.

Zotalak betu beste genera berritua
- armarik barundit? eulakit? - gutxi.

- Txapineroak!

- Oularetaraino geyen ez. Inagitek balauniko

Kanpi belak aida beramagintan.

caj-Nous jain alnolay!

- Maitoan.

8

P. Marce

Mendi aundi (a)

Berizpiti (1907)

↑ ↑ ↑
Trillo'renak
(baldan xaral)

Hago

Haro

Txoritokieta

Mikelteak

Arzurmendi (gora)
Txoritokieta
Mikelteak
Muskajoz

Ametzayua

(b)

- Iradiko mendia (berizpiti eta san aizekiko isan?)
- Iz; (an sartu isan bidea, orkei erakutsi suar kistakiko zituzten)

Mikelteak, Txoritokieta (txiki) eze is izan berran auzoagoko sakonlean (arits mada on) jertukatu

Zituzten Antziguako bostan jertoko asno eta zuten, jertan alferriko

Karlotz All garerengok ome izan gogor egin zituztenak.

(c)

Arzurmendi 'far Martin, bako jertoko jertoneki iradakoak "gu bakoitza gizon goizko goiz, onamenditok gizon da Arzurmendi jertan eta berran nola" gaur orain menderatut izango da berran eta emen". Txoritokieta jertan menderatut, est berran Ximun egiten zuten."

Altza

Arz

deloalekuba,
Inuen rezo, lan etokia
fa emen jertan zituzten baltzak
karlotz, kalistan begia.

(a) Drain, mendia aundi an Txoritokieta lertze, berran Lapik dituzten (lan sartu isan bidea) beko txoritokieta Txoritoki: gureko beriz AAKAITZ AVIRDI - Ta ome

9

ANTONDEGI⁷

3 de junio de 1932 ORIAMENDI

Fiesta del Sagrado Corazón.

Vino por la mañana con su auto mi amigo Antonio Besné (padre de tres colegiales de Tudela) para llevarme a la casa Udara-berri situada sobre Polloe. Excursión en busca de Antondegi, citado por Pirala como el sitio del ala izquierda inglesa. Recio combate.

[*Krokisa*: Arkaitzaundi (edo Txoritokieta aundi), Txoritokieta, Bolaventura, Aye-nas, Antondegi, carretera Madrid-Irun, Astigarraga, Urumea, Martutene.]

[*Oharra*: Pirala. T. IV – Libro IX – pg 21.

Sangrienta acción de Antondegui.

Dice que Evans puso su derecha en Ametzagaña y su izquierda en Galzao (Kalzada?) [*Ondoan 'a' bat dago, oharra*: Galzao? Hay un caserío Galtzaur bajo Txoritokieta.

Siete veces tomada y perdida. 2000 bajas de ambas partes.]

Arratsaldean Alzan izan nintzan ango zarrekin berriketan. Ari ta ari azpaldi-ko Antondegi kontua sortu zan, ta Laureano esan zidan: “bai, an (Antondegin) bigarren batalloikoak omen ziran ta iru konpañi purrukatu zirala.”

Baita: Ingeles illak gurdika Atañora ekarri ta ilai ta etxeari su eman ziotela

[*Krokisa*: Lo de Ametzagaña-Antondegi fue el comienzo de la batalla de Oriamendi: Lacy Evans'ek Ernanira joan nai zuen. Biderik zuzenena Oriamenditik, bñan emen karlistak gogor. ¿Zer egingo? Ametzagaña artuta Astigarragan goitik bera. Emen karretera ta toki nabarmen Ernanirako Ametzagaña bada. Onera Loyolatik zala. Miracruztik artu zun Pasaitik ta Donostitik. Sigue pag. 13.

Krokisean idatzitako leku-izenak: Oriamendi, 4 km, Ergovia. Zorroaga, Loyola, Cristobaldegi, Martutene, Astigarraga, Ventak, Antondegi, Ametzagaña, Galtzaur, Baratzategi, Moskotegi, Sagastieder, Miracruz (cocheras), Alza, Pasai, Oyarzun.]

[*Krokisa*: Viene de la pg. 11. (final)

Jose Antoniok esanak.

Batu ziran Miracruzen (oraingo) tranviaren cocherak igarota.

Andik gañezka gañezka Sagastiederrera. Emen Estado Mayor.

Donostitik Oyarzunako bide zarra. Galtzada. (Galtzaur baserria ere bada). Gal-

⁷ II. eskuizkribua, 10-11 orr.; 13. orrialdean jarraitzen du.

tzada zarran eskuira artu eta Ametzagaña pean zaude.


Ingeles zaldizkoak emen zebiltzen, Baratzategin avanzada karlistak.

Krokisean idatzitako leku-izenak: Baratzategi, galtzada, Martutenera, Ametzagaña, Zorroaga: Emendik su liberalak.

Emen zeuden mutilak zaldizko escuadroi bitarteetatik iges egin ta gero.

Txapelgorriak, Miracruz gaiñetik eskuira Zibillira. Moskotegi (Oyarzungo galtzadan).

Piralak dionez, Ametzagaña errez artu zuten, bañan Astigarraga bañon lenago tontortxo bat, Antondegi. Emen borroka.]



Pirala . I. IV - Lib. IX - pg. 23.

11.


Sangrienta accion de Antondegi -
Die, se loan puztu su dercha en ~~Ametzagana~~ ^{Ametzagana} su iz. ey Galzad (kalkad?)
Piete neces tomada y perdida - 2000 ~~cajones~~ ^{cajones} de ~~cajones~~ ^{cajones} ~~partes~~

Antaldolan Alzara iran nizan angu zaretan bei-
ketan. Laureano Arizola an ar paldiko Antondegi
kontua kontuzian, ta Laureanoek eman zelan:
"bai, an (Antondegi) bigaren batatzipoak
eman ziran, ta iru kompani parukatu
zirala"

Wasta: Ingeles ilak gurdika Atanora
ekari, ta ilai ta etxean su eman ziotela.

(a) Galzad? Hazi nuzen Galzad bij Eroritokietan.


Do de Ametzagana Antondegi fue el comienzo de la batalla de Oriamendi.



Lasy Evans'ek Ermani-
na joan nai zuri.
Bidenk zuzenena
Oriamenditek, banan
emen karlistak gozira
? Zeregingo? Ametzagana aruta
Astigarragan goitek beza-Essen kar-
tera ta fokt kabarmen Ermanirako
Ametzagana bada. Oriamendi
Iatik zaita. Miracuaratik aruta zuri
Pasatik ta Domostitik

Segue pg. 13.

Segue "VERTIZARA"



ARTEAGA'TAR JOSE ANTONIO

NOLA JOAN NINTZAN⁸. 1873garreneko Santiyo biyaramonean edo, Santa Kruz egun ayetan bota zuten Beratik (Pranzira), ta baita arma pillla itxasoz ekarri ere Ondarrabira.

Bost lagun jun giñan (bi Donostiyan Andre Graxiren etxean karpitero, calle de Narrica esquina a Pescadería.)

Oyartzun'en karabiñero, mikelete, boluntario. Aurrera Aritxulegi aldera.

Mutil asko giñan; geyenak armarik gabe. Oyartzun gañean goardiz.

DESEMBARCO. Illaren 27 edo 28an izango zan. Gu Gaintxurizketan ba-ez-pazan. An etorri zitzaizkigun gurdi pillla armaz beteta; gizonak lepoka. (pg. 77.)

Armak artu. Soldadu jantzirik ez. Bakoitzak etxetik zuana soñean. Garbiketak eta egiten ikasi genun.

San Inazio besperan Aritxulegin. [Ezabatuta: Misa de campaña. Danak pillan batalloi egin gabe].

⁸ II. eskuizkribua, 74-76 orr. Arteaga Loiolako Astiñenea baserrikoa da. Baserria Urumea ibaiaren ertzean dago, Egiara doan zubiaren ondoan.

San Inazio egunean [*Ezabatuta*: batalloia egin zan] Alzibar gañera. Karabiñeroak erten-aldiak egiten zituzten, ta guk Altamillaretik su egin genien. Lenengo tiroak an izan nitun. San Inazio egunean. Gero amarretan Meza. Gero batalloya formatu.

[*Ezabatuta*: Egun artan edo egin zan batalloya.]

An kantatu genun lenbiziko aldiz San Inazioren martxa.

—Santa Kruzen mutillekin bakarrik egin al zan batalloya?

—Ez; berak bakarrik berreunen bat besterik, ezin. Beste asko sartu bear izan ziran.

GIPUZKOAKO LENENGO BATALLOYA. Lenengo nagusi (coronel?) Aizpurua.

Bigarren nagusi (T.C.?) Itxaso.

Irugarren nagusi (Comandante) Emparan Inozenzio (azpeitiarra)!!

1.^a Compañía - Capitán

Arregi'ko Beltxa (Oyartzuarra) (120 gizon).

2.^a Compañía - Capitán

Jose Martin Aramakua (?edo 7.^a).

3.^a Compañía - Capitán

Antxusa (Oyartzuarra).

4.^a Compañía - Capitán

Iñazio Urkizu (Aizpuruen illoba).

5.^a Compañía - Capitán

Inazio Mari (Oyartzun).

6.^a Compañía - Capitán

Legarretako maixua.

7.^a Compañía - Capitán

8.^a Compañía - Capitán

Etxeberria (gero Donostian relojero ezagutu genun).

[1.400 mutil]

Laster sakabanatu giñuzten. (1.º de Agosto.)

Gu (4garrengoak) Zaldigain (iya Artikutzako mugan). Emen asi giñan ikasketan (instrucción).

Antxusa (3), Altzibar'en.

Arregi Beltxa (1.^a) Iturrioz'en.

Uztaren 15an Goizuetara (festetara) 3 ta 4garrengo konpañiak.

Uztaren 16. Iturrioz'ara.

Emendik Alzara.

—Ez al zan mikelelerik edo?

—Ez; an jangayak (errazioak) artu ta aurrera joateko ziguten. Ara zer zan: Antxusa, Usurbillara joan, ta preso artu ditu Alkatea Trampas ta sekretarioa, ta Aritxulegira zeramazkien. Gu bidali ba-ez-pada. Txoritokieta aldera gijoazela Garberaztik, Arzelus'ek bat-batean deskarga bota zigun. Uts oso. Arzelus Antxusa arrapatu nayan zebillen, bañan alperrik.

—Loyolako Komunio aundian?

—Ez; ez giñan izan.

SAN MIELETAKOA⁹. 1875.

Andoaindik irten ta karlistak atondutako bidetik joan giñan.

—Zer bide zan ori?

—Ara: Andoaindik Oyartzunako bide zabala, Ernanitik dijoa, ta gureztat ez bait zan Urnietatik aurrera sartzerik eta orregatik atondu zituzten Goiburutik ventetara arteko bideak. Artilleri ta kotxe ta danentzat.

Prantzillagan lo. Otzazuloetatik ventetara. Emen egon alditxo bat. Goiz goizetik entzun gendun San Markos aldeko tiro-zalaparta. An zan gogorrena.


Gure aldera kolumna bi. Bat Errenteritik. Malda gañez, aldapa legun legun sikonik gabe Zamora gañeraño errex etortzen ziran. An aurrean bagenun trintxera, konpañi bat edo. Abek galdu ziran. Zamoran zeudenak atzea artu zieten uste gabe. Ekin diyote bayonetaka. An il zuten Etxeverria tenientea (Eskoriatzakoa) ta besteen bat. Gañerakoak alde.

Urkabe zetoztenak Iturriotztik Munuaundi aldera. Gu irten giñan Ventetatik eta arbola tartean ikusi ditugu; bai su egiñ ere. Atzeratu egin ziran.

—Ta Zamorakoak?

⁹ II. eskuizkribua, 104-106 orr.

—San Markos aldekoa nola ote zijoan zai. Beltzak gora iyotzen baziran, ayek artuko zituzten atzetik; bañan etzizayen orla gertatu, ta Erreterira berriz. Bai aguro ere. Gu ayen ondoren. Laxterka. Bidez, morralak arintzeagatik arrosa ta pillarka boteaz. An billatu genun Etxeberri gizagajoa bayonetakaz josiya.




ORIO AURREKOAK (1875'garreneko Otsail asieran)¹⁰

(...)

Bitartean, liberalak Igeldo gañetik asi ta Oriamendira fuerteak (gudetxeak) egiten ari ziran. Egindakoan (Mayatzean) Amuzko, Orio ta Usurbil utzi ta atzeratu, ta gu aurrera. Mendizorroztik Teresategira.

[Krokisa]



Orio ta Usurbil oso gureztat geratu ziran. Orion jarri zan 5garren batalloya.

Usurbillen jarri zan seigarrena.

Lasarte, Arrikarte ta Andoaiñen 1, 2 ta 7. (Ez beti.)

Expedizioak. Oraindik izan zan Naparroara ekspedizioen bat, bañan aguro itzuli ziran. Liberalak Donostira jende asko ekarri zutela ta.

3 ta.4garrena Txoritokieta ta San Marcos'en.

8garrena Irun aldera.

Ernaniko bidean, kalte aundi egiten zieten gure Erastorbe (Mugerza)k ta, Oriamendi bideko etxeak sendotu ta bide ondo esiak zotal ormaz egin zituzten.

¹⁰ II. eskuizkribua, 109-110. orr.

Inchaurrondo.

Chandermenea.

Cachola (orain Pakea) bide ezkerre; Ayeteren urren.

MIKELETEAK¹¹


Amuzko-Etxeberri ta utzi zutenean Loyolan jarri zituzten. Emendik Donostira iges-aldiak (gabez batez ere) egin oi zituzten. Ezin jun zeitezken karreteratik, Alkoleako goardiak (voluntarioak) galerazi egiten zien ta, mendiz, ibaya igarota Txoritokoenetik... ta Polloe edo... Atochara.

Alako batean, mikeleteako agintariyai esan diote urrengo egunean, egun sentirako, Txoritokietako bean izan bear zutela.

Zendoya kapitanak kornetak jo erazi ditu, oraindik mutillak lo zirala. Jaiki bear. Formatu. Lista pasa. Mutil batzuek falta. Zendoya amorratuta. Batzuek Donostira junak. Sarjentoak esan omen zion: "Goyen ere batzuek izan bear dute". An di-joa Zendoya ta... belar pilletan ezpata sartu, bai bayonetak ere. ¡Ay, ay, ay! Ator, ator. Pitax tolosarra ta (ezan Pitax bakarrik). Bizkarretan zigorkadak emanaz daramazki...

Txoritokietara.

[Krokisa: S. Marcos, Txoritokieta aundi, Tx. txiki, Irazuene, Martutenera, Donostira, Alzara.]



¹¹ II. eskuizkribua, 112. or.

D. PEDRO BELDERRAIN

SAN MARTIÑETAN (Nv. 1874)¹²

Karlistak Irun artu nayan.

Asalto egin bear zutela. Zein batalloik ekin bear zuten izendatu ta Txakurtxulo Irungo Katean (Bentak bañon Irun alderago). Azkenean uts.

Karlista guda-nagusi D. Hermenegildo Zeballos; kartista oso leýala bañon guda agintari buru gutxikoa. Ezula bear zanean agindu (Ernanikoan bezela) ta ez dakit nik zer. Ezuten karlistak gauz onik egin. Asaltorik ez. Mutillak amorro biziyan, traizio zala ta...

Orrela, badator Donosti aldetik etsai salla izugarria. (arriba pg. siguiente)

[*Krokisa: Oiartzun*]

Gobernuak ifar alde abetan zun guda nagusi goenekoa zan. Ebroko alderdientan zebillen. Irungo gertaerak jakin zitunean, ango tropa sallak bildu, Santanderrera trenez ta emendik Donostira itxasoz.

Irun aldera jotzeko iru zati egin zitun bere gudari sallak.

[*Krokisa: Tropen mugimenduak Donostiatik Irunera*]


Salla bat ezkerretik Jaizkibel menditik. Bestea eskuitik Txoritokieta ta San Marcos (Zamalbide - Oyarzun). Besteak erditik.

[*Krokisa: Santiyo m. 6garrena, Txoritokieta m. 4garrena, S. Marcos m. 5garren compañi Chacon nagusi, Kutarro m., Bentak (Ahi estuvo esos dias D. Hermenegildo Ceballos), Zamalbide 5ª (?) Navarra, Alza, Erretereri*].


Ceballos gizagajoa an zegon Astigarragako bentetan zer egin ezekiela. Ez bear bezela, ez dem.... agindu. Liberalak aisa Irunen sartu.

¹² II. eskuizkribua, 115-118. orr. D. Pedro Belderrain Oiartzungo apaiza da.

Gobernuak, ifair alde abeten xun gudu nagusi goenekoan 117
 zan. Ebroko aldeanietan zehar Pen. Irungo gertaerak
 jakin zituztean auzo txepista batak Bildu, Puntandivera truxa
 ta emendik Donostira itxasoz —
 Irun aldean jatorreko iru zati ezin izan bez guduak batak.



Saila bat eskieretik Irun Kibel menditik - Bentak eskieretik tori-
 tokieta ta S. Marcos (Lamallide - Oyarzun) - Bentak erditik.



Ceballos giza gizona am berez Astigarrizako
 lantza eta zeregin eskieretik ta beñ besaba, ez dau...

Karlista batalloi nagusi bakoitzak al zuen aldera jo zun. Geyenak Bera ta Lesakara mendiz. Txakurtxulo Oyartzunara. Arren urren Errege bera. Oyarzungo enparantzan 3garrena formatu ta «Viva Erregea». «Viva» erantzun mutillak, bañan norbaitek de-
adar egin zun «Mueran los ojalateros!». Ceballosengatik zioten batez ere.

Zamalbiden zegon 4garren (edo 5?) naparra. Ezekiten nun ziran, ta ezta S. Mar-
kos bera zetozkietela etsayak. Alako batean, mikeleteak beren aurrean.

—Zeintzuk dira oyek? Quienes son esos?)

—Mikeletes.

—Qué es eso de mikeletes? Ez bait zuten mikeleteen berririk.

—Peseteros, esan zun norbaitek.

—¿Peseteros? ¡A ellos!

Bayonetak pusill muturretan jarri ta ekin diete. Mikeleteak atzera. Bañan beren
bizkar zetorren tropa salla aundia, ta ayekin bat egin ziran.

Ori ikusterakoan naparrak asarre egin ziran. Oso gero. Bat batean etsayak ga-
ñera etorri zitzaizkiela, ezer ez jakin gabe ta... Amorro amorroz bide aurrera jo ta
Andoaiñan gertatu ziran.

Don Carlos Lekoene baserrira lotara. Txakurtxulok konpañi bi eman zizkion.
Urrengo goizean mendi gora abiatu ta zaldia lortu omen zun.

Txakurtxulo erre errean zegon.

San Markos artu? Kutarro ere artu? Andik Oyarzun aldera etorriko zirala edo-
zeñek ikusten zun. Iñork agindu gabe artzen du batalloya ta, pipa errez, etsayen
bidera dioa. Munuaundin jarri (Munutxikin berriz Arregiko Beltza). 6 konpañi ta
mutil gutxikoak.

(Asieratik, konpañi bakoitzak 100 mutil bazitun, bañan Somorrostrokoekin asko
gutxitu ziran. Geroztik geitu zituzten; ala ere Txakurtxulok konpañi bakoitzean,
zenbat izango zitun? (irurogei bat mutil? Sei konpañiak ez beintzat. 400 gizon.)

Asi ziran surtan. Lenengotik il zanetako Beltza. Oyartzunera esku eskallera
ekarri zuten.

Txakurtxulok bere aurrekoai bakarrik begiratzen zion, ta ara nun mikelete sa-
lla, Olazabal nagusi zutela, Munuaundi atzera joan dan ta bat batean su egin ta Txa-
kurtxulo bera jo. (Atzetik; naigabe aundi izan zun.) Zauri orregatik il zan.

Mutillak inguratuta zirala ikusi zutenean, danak alde. Orduan ta sasoi ederre-
an Lekoenera Erregearekin jun ziran bi konpañi ayek etorri ta gogor egin zuten,
ta baita etsayak geratu erazi ere. Ayei eskerrak etziran mutil asko galdu.

H. TOMAS LIZARRALDE

ERRENTERI AURREAN¹³

Goenetxea gure kapitanak anai bat zun mikeleteetan. Batean ala esan zigun: Biar Errenterin pelota partidoa omen da..., zer edo zer egingo al diagu, erriko guztiak plazan izango dituk eta.

Partidoa asterakoan sarjentoari deitu ziok, berak Goenetxeak braka gorriak kendu, gorriak urrutitik ikusten bait dira ta, gureak orreak jantzi ta emezortziren bat mutil goazen ixil ixilik. Arkaldian ezkuturik aurrera polliki polliki. Erri gañean berreun metro izango giñan; lurrean etzanda. Plazako zarata eta deadarrak entzunik. Alako batean kapitanak oju egin ta su egin genun mutil danok. Bereala laxterka arto tartetik alde egin genun. Alzako kañoi aundiak su egin du, kea ikusi aldera bañan etzigun kalterik egin izan.

—Ta zuek, iñor jo al zenuten?

—Bai; gure kapitanaren anaya, mikeletea, iztarrean.

D. JOSE IRAZU

INGENIEROS (GUDA-LANGILEAK)¹⁴

(...) Ermaniko plazan arkitu Loma, Andoain aldera zetorrela, ta Oviedo, bera ze-toztenen nagusia. Loma sutu ta makillaz jo omen zun... Olazabalek bere ezpata puskatu... Orduan kendu zuten Loma Gipuzkoatik ta Bizkaira bidali.

—San Markosen?

—Ez; batalloetako mutillak berak egin zuten. Estalki ta guztiz.

—Ta Txoritokietan?

—Ezta ere. An arkaitz asko da ta.

—Arlaban? (...)

¹³ II. eskuizkribua, 94. or. H. Tomas Lizarralderen lekukotasuna I. eskuizkribuaren 46. orrialdean hasten da.

¹⁴ I. eskuizkribua, 70. or. "Fondista del Hotel Loyola"

ZABALTXOKO BITORIO¹⁵

Meza ikusi ta bereala San Marcosera.

Ez giñan geyago provintzitik irten.

San Martiñetakoa.

Txoritokietan giñan bada.

Bazetozten etsayak baztar guztiak betetzen zituztela. Mikeleteak aurretik. Gure azpiko belardi aurrian jarri ziran. Guk su egiten genien ta ayek lurrean etsan ziran. Orrela etorri zizayen Fernandez (Azpeitian il zan gudaz gero) ta asi zan de-adarka “cobardes ta ...” ezpatarekin mutillak joka. Guk ikusten genun ta tiroka berari: tiro bat, ta uts, bigarrena ta uts, irugarrena ta uts, laugarrena ta uts ere, bostgarrena ta gizona lurrera. Istarrean jo genun.

Bazetorren etsai salla aundia: “frente de batalla a la derecha, frente de batalla a la izquierda” asi ziran, inguratu giñuzten ta gu atzera.

Gure atzetik, Munuaundin Txakurtxulo 3garrengoarekin. Abek ere alde egin bear izan zuten.

Aben ondore joan zan Amante mikeletea.

DIARIO DE SAN SEBASTIÁN

Extractos, 1873¹⁶

Proyecto Batallón de voluntarios (...) Alza 107 hombres (...)

Extractos, 1875¹⁷

10 Junio, n° 174

Ataque nocturno (carlista) al fuerte de Alza (noche del 9 al 10). 4 compañías atacantes.

Extractos, 1875¹⁸

11 Junio, n° 175

Batallones carlistas (...), 2,3 y 5: Astigarraga y S. Marcos a Oyarzun.

¹⁵ II. eskuizkribua, 299. or.

¹⁶ II. eskuizkribua, 338. or.

¹⁷ II. eskuizkribua, 349. or.

¹⁸ II. eskuizkribua, 350. or.

338

Dn. 17

Organización de la Milicia Nacional
(Compañías voluntarias de la libertad)
para 1.º de Enero de 1874

PROYECTO

Con 1578 hombres armados de 17.º (3)
Se dividirán en 2 batallones. El 1.º con cuartel
a la parte vizca del pueblo maso la plaza de
Las Escuelas y calle de Estafetas.

1.º Batallón	7 compañías de 17.º	total 1198
2.º "	2 "	280

Com. D. José Bernat
Compañías voluntarias
C/1.º de San M.º Ferrn

Lacortarrabi	1	87
Zorrua	1	264
Meñerri	3 compañías	254
Pasaya (da)	2 "	235
Orrio		138
Astigerraya		90
Añua		67
Urdiata	2	174
Hernani		
Añuain		2914

Se habla de hacer una contribución forzosa
para los de 18-45 años no pertenecientes al Batallón de Voluntarios
(1) Intendencia de voluntarios para los voluntarios armados 1.º de Enero

LIZASO'TAR LEONARDO

Txoritokietan¹⁹

(Pirala: T. VI, pg. 385, 28 Spt.)

Egun artan ere gu aurretik. Karlisten lenbiziko lubakira gijoazela, su egin ziguten. Orduan erori zan Fernández, guretako kapitana. Aurrera gu lubakiraño. Lur ton-torrera iotzerakoan, gure teniente Amante (andoaindarra) gora zijoan. Karlistak lubaki artatik irten da goragoko beste batera aldatu ziran. Bi mutil bakarrik geratu zuloan. Obek il ziguten Amante.

—Beste batek (Zabeltxoko Bitorio azpeitiarrak) esan zidanez (Cuaderno II), Amante eritu ta aitz-zuloan geratu ta ill zutela.

—Ez; lubakira iotzerakoan.

—Ez al zenuten goragoko lubakia artu?

—Ez; gure atzetik zetozten tropakoak, gure aurrean jartzeko txanda izan zuten; gu aitz-zuloetan-ta ezkutun. Ez ziran aurrerago jun, goikoak gogor izugarri egi-ten zuten da.

Meagetan bezela, beste 80 mikelete il ta eritu.

GETARIKOAK

Txoritokietakoa²⁰

1875-garreneko Iraillaren 28-an.

Beltz jende oiek atera ziran
Ergobiatik aurrena,
S. Markos alde Txoritokieta
mikeleteak urrena;
gero Oiartzundik sarrera berriz,
baita soldadu zarrena,
Errenterian errefuerzoa
azkenerako zeukena.

Erdiak mozkortu zituzten eta
oiuarekin karraxi,
trácala joaz ekarri zuten
indarrak ainbat fantasi.
Gero karlistak tiroka eta
baionetarekin asi,
guztiak ilko ez bazituzten
laxter joan ziran igesi.

Mikeleteak arrabiz
azkar joan ziran emendik.

¹⁹ "Karliten eta...", 150-151 orr. Lizaso Urdanetakoa da, mikeletea.

²⁰ "Karliten eta...", 221-222 orr.

BILLARTAR TXOMIN / DOMINGO VILLAR

Txoritokietako burrukan²¹

[*Krokis bat dago*]

—Gu lubakian.

—Batalloi osoarentzat lekurik bai al zan?

—Baita lau batalloirentzat ere. Astigarraga gañetik asi ta Txoritokieta azpitik S. Markos ere artzen zun lubaki luze-luzeak.

—Ta bai al ziran, lubaki errenkada baten gañez, beste goragoko lubakiak?

—Ez; errenkada bakarra. Etsai bildurik ez zanean, gu Astigarragan patxaran, ta konpañia batek, eskadra bi (konpañi erdia) lubakia zaitu, ta lubaki aurreko bazterratan ibiltzeko bialtzen zitun. Askotan, gabez, S. Markosko “ronda”-rekin topo egiten genun.

Borroka alde artatik izango zala lenagotik jakin genun, ta batalloi osoa lubakian sartu ere. Gu Bordatxo dioten basarri inguruetan giñan; Astigarraga ezkerrera ta S. Markos gañean eskuira.

—Bazetoztik!!

Goizean, egun oso argi bañon lenago. Gure aurrean arkaiztxo bat bazegoen. An azaldu orduko asi ziran gureak tiroka, bañan teniente koronel Portunik (Fortuni) egoteko, berak esan arte. Ala ere tiro batek ta tiro besteak, banaka. Portuni, asarretuta, iñork tirorik botatzen bazun, ezpatarekin lepoa moztuko ziola asi zan.

Guk gogor egiten ez geniolakoan, aurrean zetozten. Mikeleteak aurretik. Opi-zialeak beren soldaduai bulka ta bulka aurrera. Ezpaten dizdira ederki ikusten zan.

Sartu dira gure azpiko sakonean; baita gora guregana abiatu ere. “¡Hasta la venta de Astigarraga! ¡Hasta la venta de c...s!”. Orduan asi giñan gu. Nai ala botatzen genitun. Alperrik ari zirala ikusirik, atzera egin zuten. Guk orduan ta gogorrago. Arin-arin zijozten argaiztxo gañera. Erituak bertan utzita alde egin zuten.

Jetxi giñan ta txoko batean, ikatza egindako tokian, 18 mikelete arrapatu genitun. Mutil ederrak!

—Ez zenien ezer egin?

—Bizirik utzi, bañan batek kapotea kendu, bestek prakak... Alkandora ta kalzontzillo bakarrik utzita, Andoñara eraman genitun.

—Mendizorrotzen?

—Ez; gu egun artan Astigarragn giñan.

²¹ “Karlisten eta...”, 250-251 orr. Villar Aretxabaletakoa da.